

4

Kapital higikorraren etekinak

- 4.1 Zer dira kapital higikorraren etekinak?
- 4.2 Zer dira gauzen bidezko etekinak?
 - 4.2.1 Gauzen bidezko etekinen kontzeptua
 - 4.2.2 Nola baloratzen dira?
 - 4.2.3 Nola integratzen dira oinarri ezargarrian?
- 4.3 Zeintzuk dira kapital higikorraren etekin osoak?
 - 4.3.1 Edozein motatako entitateen fondo propioetan parte hartzeagatik lortutako etekinak
 - 4.3.2 Kapital propioak beste batzuei lagatzeagatik lortutako etekinak
 - 4.3.3 Kapitalizazio eragiketengatik eta bizitza edo elbarritasun aseguruaren kontratuengatik lortutako etekinak, diruzkoak nahiz gauzazkoak
 - 4.3.4 Kapital higikorraren beste etekin batzuk
 - 4.3.5 Etekinen zein portzentaje aitortu behar da?
- 4.4 Zein gastu dira kengarriak?
- 4.5 Nola kalkulatu da etekin garbia?
- 4.6 Nori egozten zaizkio kapital higikorraren etekinak?
- 4.7 Noiz egozten dira kapital higikorraren etekinak?
- 4.8 Nola baloratzen dira zenbatetsitako etekinak?
- 4.9 Eragiketa lotuak

4.1 Zer dira kapital higikorren etekinak?

Kapital higikorretik zuzenean edo zeharka eratorzen diren kontraprestazio edo onura guztiak, diruzkoak, nahiz gauzakkoak izan, hartzen dira kapital higikorren etekin osotzat, haien izena edo izaera edozein dela ere. Oro har, kapital higikorren etekinak dira, baita ere, higiezintzat kalifikaturik ez dauden gainerako ondasun edo eskubideetatik datozenak, beti ere ondasun edo eskubide horiek zergadunaren titularitzapekoak badira eta zergadunak berak burutzen dituen jarduera ekonomikoei atxikita ez badaude.

Etekinak zergadunak burutzen dituen jarduera ekonomikoei atxikitako ondare elementuetatik datozenean (ondasun edo eskubideetatik), jarduera ekonomikoen etekintzat hartzen dira⁴³, ez kapital higikorren etekintzat.

Bereziki, **honako hauek dira kapital higikorren etekin osoak**:

- **Edozein motatako entitateen fondo propioetan parte hartzeagatik lortutako etekinak**: dibidenduak, bazkide izateak dakartzan onurak,...
- **Kapital propioak beste batzuei lagatzeagatik lortutako etekinak**: interesak, letrak, ordaindukoak, deskontura jaulkitako tituluak...
- **Kapitalizazio eragiketengatik eta bizitza edo elbarritasun aseguru kontratuengatik diruz edo gauzen bidez lortutako etekinak**.
- **Kapital higikorren beste etekin batzuk**: ondasun higikorren errentamenduak, errentak, kapitalizazio eragiketak, jabetza industrial eta intelektuala, irudi eskubideak...

Honako hauek, ordea, **ez dira kapital higikorren etekinak**:

- Entitateak banatzen dituen dibidenduak eta mozkin partaidetzak, baldin eta horiek sortu diren zergaldietan entitate banatzaileak ondare sozietateen erregimenean tributatu badu.
- **Nazioarteko gardentasun fiskaleko** erregimenpean dauden entitateetatik jasotako **dibidenduak** edo mozkin-partaidetzak, beti ere egotzitako errenta positiboek dagozkien neurrian⁴⁴. Konturako dibidenduei tratamendu bera eman go zaie.
Erreserbak banatzen direnean, sozietatearen akordioan erabaki den banaketa era hartuko da kontuan, eta horrelakorik ez badago, erreserba horietarako ordaindu diren azken kopuruak aplikatu direla joko da.
- Erregelamenduz **paradis fiskaltzat** kalifikatuta dauden herrialde edo lurraldeetan eratutako **inbertsio kolektiboko erakundeek** banatzen dituzten irabaziak⁴⁵.
- Zergadunak bere ohiko **jarduera ekonomikoaren** barruan burututako eragiketen prezioa **geroratu** edo zatikatzeagatik lortutako kontraprestazioa, dagokion kontzeptuarengatik ere tributatzera behartzen duena.
- **Akzio liberatuak** (dohainekoak) ematetik datozen etekinak.
- **Laguntza teknikitik** datozenak, baldin eta laguntza hori jarduera ekonomiko bat egiten duten zergadunek ematen badute eta prestazioa haien jardueraren barruan egiten bada.

⁴³ Ikus 5. kapitulua, "Jarduera ekonomikoen etekinak" izenekoa.

⁴⁴ Nazioarteko gardentasun fiskalaren erregimenean errentak nola egozten diren jakiteko, ikus 7. kapitulua, "Errenten egozpena" deiturikoa.

⁴⁵ Paradisu fisikaletan eratutako inbertsio kolektiboko erakundeen bazkide edo partaideek egiten duten tributazioa 7. kapituluan jasotzen da, "Errenten egozpena" izenekoa.

- Kapital zabalketetan **lehentasunezko harpidetza eskubideak** saltzea (beren tratamendu fiskalarekin jarraitzen dute ondare irabazi edo galeren barruan).
- Zergadunaren heriotza dela-eta musu truk egindako eskualdaketetatik datozenak, eskualdatutakoa besteren kapitalak erakarri eta erabiltzea adierazten duten aktiboak direnean.

4.2 Zer dira gauzen bidezko etekinak?

4.2.1 Gauzen bidezko etekinen kontzeptua

Gauzen bidezko etekintzat jotzen dira **ondasunak, eskubideak edo zerbitzuak dohainik edo merkatuko ohiko preziotik behera nork bere xedeetarako erabili, kontsumitu edo lortzea**, nahiz eta ematen dituenarentzat gastu erreala ez izan (adibidez, zergadunak etxetresnak, bidaiak, etab. jasotzea diru kopuru jakin batzuk epe finkora jartzeagatik).

Etekinak ordaintzen dituenak eskudirutan ematen dizkionean zenbatekoak zergadunari honek ondasun, eskubide edo zerbitzuak eros ditzan, diruzko etekintzat hartuko dira.

4.2.2 Nola baloratzen dira?

Gauzen bidez jasotzen diren errentak **merkatuan duten ohiko balioaren arabera** baloratzen dira oro har.

4.2.3 Nola integratzen dira oinarri ezargarrian?

Gauzen bidez jasotzen diren errentak oinarri ezargarrian integratzeko, gauzako ordainketaren balorazioa eta hari dagokion konturako sarrera batu behar dira, sarrera horren zenbatekoa errenta jaso duenari jasanarazi ez bazaio beti ere. Kasu horretan, errenta jaso duenak gauzako ordainketaren balorazioa bakarrik integratuko du oinarri ezargarrian, konturako sarrera gehitu gabe.

4.3 Zeintzuk dira kapital higikorren etekin osoak?

4.1 apartatuan adierazi dugun bezala, kapital higikorren etekin osoak ondoko hauek dira:

4.3.1 Edozein motatako entitateen fondo propioetan parte hartzeagatik lortutako etekinak

Kategoria honen barruan ondorengo etekinak sartzen dira, diruzkoak nahiz gauzakkoak izan:

1. Dibidenduak, batzarretara joateko primak eta mozkin partaidetzak.
2. Era guztietako aktiboetatik (ondasun eta eskubideetatik) datozten etekinak, baldin eta aktibo horiek, estatutuen arabera edo sozietateko organoen erabakiz, entitatearen irabazietan, salmentetan, eragiketetan, sarreretan edo antzeko kontzeptuetan parte hartzeko ahalmena ematen badute lan pertsonalaren ordainketarekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik. Akzio liberatuak ematea ez da etekin horien artean sartuko.
3. Entitatearen fondo propioetan dagoen partaidetza adierazten duten balore edo partaidetzak erabili edo gozatzeko eskubideak eratu edo lagatzeagatik lortutako etekinak, beren izena edo izaera edozein dela ere.
4. Entitate batetik jasotako beste edozein onura, bertako bazkide, akziodun, asoziatu edo partaide izateagatik.
5. Akzio edo partaidetzen jaulkipen primaren banaketa. Lortutako zenbatekoak eragindako akzio edo partaidetzen eskurapen balio gutxituko du, deuseztatu arte, eta handik atera daitekeen soberakina kapital higikorren etekin gisa zergapetuko da.

6. Kapital murrizpenaren xedea ekarpenak itzultzea denean, honen zenbatekoak edo jasotako ondasun edo eskubideen merkaturako ohiko balioak ukitutako balore edo partaidetzen erosketa balioa gutxituko du, hura deuseztatu arte. Gerta litekeen soberakina kapital higikorren etekin gisa integratuko da eta edozein motatako entitateen fondo propioetan parte hartzeagatik lortu dela joko da. Integrazioa jaulkipen primen banaketarako ezarritako era berberari jarraiki egingo da, kapital murrizpena banatu gabeko mozkinen ondorio denean izan ezik. Horrelakoetan, kontzeptu honengatik jasotzen diren kopuru guztiak dibidenduak, batzarretara joateko primak eta edozein motatako entitateen mozkin-partaidetzak bezala zergapetuko dira. Ondorio horietarako, kapital murrizpenek, beren xedea zeinahi dela ere, banatu gabeko mozkinetatik ez datorren kapital sozialaren zatiari lehenik eragiten diotela ulertuko da, eta hala izango da kapital sozialaren zatia deuseztatu arte.

Adierazitako etekin osoak **lurrealde espainiarrean kokaturiko entitateetatik datozenean**, honako koefiziente hauekin biderkatuko dira oinarri ezargarrian integratzeko:

- bider %1,40 oro har.
- bider %1,25, Sozietateen gaineko Zergaren arauen arabera %25eko tasan tributatzen duten entitateetatik datozenean⁴⁶.
- bider %100, honako kasuetan:
 - Sozietateen gaineko Zerga aurreko b) letran adierazitakoa ez bezalako tasa murriztuen arabera ordaintzen duten entitateetatik datozenean.
 - Kooperatiba babestuetatik eta bereziki babestuetatik datozenean.
 - Jaulkipen primen banaketatik datozenean.
 - Entitatearen fondo propioetan dagoen partaidetza adierazten duten balore edo partaidetzak erabili edo gozatzeko eskubide edo ahalmenak eratu edo lagatzetik datozenean, beren izena edo izaera edozein dela ere.
 - Entitate batetik jasotako beste edozein onura, aurrekoekin zer ikusirik ez duena, bertako bazkide, akziodun, asoziatu edo partaide izateagatik.

%100eko koefiziente hau honako etekin hauei ere aplikatzen zaie: etekinak ordaindu aurreko lehen bi hilabeteetan eskuratutako balore edo partaidetzetatik datozenei, baldin eta data horren ondoren, baina epe berberaren barruan, balore homogeneoak eskualdatu badira. Azkenik, merkatu arautuetan kotizatzen ez duten balore edo partaidetzak badira, bi hilabeteko epea urtebetera luzatuko da.

Adibidea

2005. urtean zehar honako **dibidenduak** jaso dituzu:

- 601,01 euro Banco Guipuzcoanoko akzioengatik. 90,15 euroko atxikipena egin dizute.
- 901,52 euro aseguru orokorreko mutua batean parte hartzeagatik. 135,23 euroko atxikipena egin dizute.

a) Integrazioa oinarri ezargarrian:

⁴⁶ Honako entitateak dira, besteak beste: aseguru orokorreko mutua, gizarte aurreikuspeneko entitateak, elkarrekiko bermedun sozietateak, elkargo profesionalak, irabazi asmorik gabeko fundazioak, enpresari eta profesionalen elkarteak, ganbera ofizialak, sindikatuak, alderdi politikoak, etab...

$$601,01 \text{ €} \quad \times \quad 1,40 \quad = \quad 841,41 \text{ €} \quad (\text{ikus 4.3.1. a})$$

$$901,52 \text{ €} \quad \times \quad 1,25 \quad = \quad 1.126,90 \text{ €} \quad (\text{ikus 4.3.1. b})$$

$$\text{Etekin osoak} \quad \quad \quad 1.968,31 \text{ €}$$

b) Dibidenduen kenkaria kuotan (ikus 12.6):

$$\%40 \quad \quad 601,01 \text{ €} \quad \quad 240,40 \text{ €}$$

$$\%25 \quad \quad 901,52 \text{ €} \quad \quad 225,38 \text{ €}$$

$$\text{Kenkaria} \quad \quad \quad 465,78 \text{ €}$$

c) Atxikipena

$$90,15 \text{ €} + 135,23 \text{ €} = 225,38 \text{ €}$$

	Dibidenduak	Integrazio koefizient.	Integrazioa oin. ezaran	Kenkari %	Kenk.	Atxikip.
Banco Guipuzcoano	601,01 €	1,40	841,41 €	%40	240,40 €	90,15 €
Aseguruen mutua	901,52 €	1,25	1.126,90 €	%25	225,38 €	135,23 €
Guztira			1968,31 €		465,78 €	225,38 €

Bazkide, akziodun edo partaide izateagatik lortzen diren dibidendu, mozkin partaidetza eta bestelako onurak **lurrealde espainiarrean egoitzarik ez duten sozietate edo entitateetatik datozenean**, jasotako zenbateko osoagatik integratuko dira oinarri ezargarrian, ezekin koefizienterekin biderkatu gabe.

4.3.2 Kapital propioak beste batzuei lagatzeagatik lortutako etekinak

Era guztietako kontraprestazioak, diruzkoak nahiz gauzazkoak, hartzen dira halakotzat, bere izena edo izaera edozein dela ere. Kontraprestazio horiek interesak izan daitezke, baina baita **dirua lagatzearen truke ordainsari modura adostutako beste edozein ordainketa mota** ere.

Kategoria honen barruan sartzen dira, halaber, besteren kapitalak erakarri eta erabiltzea adierazten duten era guztietako aktiboak eskualdatu, itzuli, amortizatu, trukatu edo bihurtzeagatik lortzen diren errentak.

Dena den, zergadunaren heriotzagatik besteren kapitalak erakarri eta erabiltzeko aktiboak musu truke eskualdatzen direnean kapital higikorren etekinik ez dagoela ulertzen da.

ERNE era guztietako aktibo finantzarioak eskualdatu, trukatu edo amortizatzeak kapitalaren etekinak sortuko ditu beti, ez ondare irabazi edo galerak. Besteren kapitalak eskuratu eta erabiltzea adierazten duten balore negoziagarriak hartzen dira aktibo finantzariotzat, horiek dokumentatzeko era edozein dela ere. Aktibo finantzarioak musu truke eskualdatzen badira zergaduna hil egin delako, ez da kapital higikorren inolako etekinik sortzen.

Bereziki, honako hauek hartzen dira kapital propioak beste batzuei lagatzeagatik lortutako etekintzat:

- Edozein igorpen tresna dela-medio lortutako etekinak, merkataritzako eragiketengatik sortutakoak barne, igorpen tresna endosatzen edo eskualdatzen den unetik aurrera, beti ere endosua edo lagapena hornitzaileen kreditu bat ordaintzeko egiten ez bada.

- Era guztietako finantza entitateen kontuetatik jasotzen den kontraprestazioa, bere izena edo izaera edozein dela ere, aktibo finantzarioen eragiketetan oinarritutakoak barne.
- Finantza aktiboan aldi baterako lagapenetatik datozen errentak, berrerosketa itunduta dagoenean.
- Finantza entitate batek bere titularitateko kreditu bat erabat edo zati batean eskualdatu, laga edo transferitzeagatik lortzen diren errentak.

Etekinak **baloreak eskualdatu, itzuli edo amortizatzeagatik** sortzen denean, eskualdaketa, itzulketa edo amortizazio balioaren eta eskuratze edo harpidetze balioaren arteko diferentzia izango da etekina. Aldiz, etekina **baloreak trukatu edo bihurtzearen ondorioz** lortzen denean (adibidez, obligazioak akzioekin trukatzeko direnean), jaso diren baloreen balioa guk eman ditugun baloreen eskuratze balioarekin alderatu beharko da.

Truke edo bihurtzea baliozkat jasotzen diren baloreei dagokiena hartuko da.

Etekinak murrizteko, eskuratze edo inorengatzearen gastu osagarriak ere konputa daitezke, behar bezala frogatzen badira.

Aktibo finantzarioak eskualdatzetik eratorritzen diren etekinak negatiboak badira, eta zergadunak eskualdaketa hori egin aurreko edo ondorengo bi hilabeteetan aktibo finantzarioak eskuratu baditu, etekin negatibo horiek zergadunaren ondarean dauden aktibo finantzarioak eskualdatu ahala (hau da, bere karteratik behin betikoz irten ahala) integratuko dira oinarri ezargarriari.

1996ko abenduaren 31 baino lehen eskuratutako zor publikoa

Etekinak lortzen badira 1996ko abenduaren 31 baino lehen eskuratu diren zor publikoko baloreak eskualdatu, amortizatu edo itzuli ondoren, eta horiek 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen ondare gehikuntzak sortu badituzte, etekin horiek oinarri ezargarriaren zati berezian sartuko dira. Kasu horretan, etekin horren sorreratik datozen murrizpenak ezingo dira aplikatu⁴⁷.

Adibidea

2004. urtean 3.005,06 euroko aktibo finantzarioa erosi zenuen, eta 2005eko abuztuaren lehen 2.884,86 eurotan saldu. Aktibo horren erosketagatik 19,53 euroko gastuak izan zenituen. 2005eko irailaren 16an, beste aktibo finantzario homogeneo bat erosi zenuen 3.005,06 euro ordainduz.

Aktibo finantzarioaren salmenta

Eskuratze balioa (3.005,06 € + 19,53 €)	3.024,59 €
Eskualdatze balioa	2.884,86 €
Etekin osoa (2.884,86 € - 3.024,59 €)	-139,73 €

Aktibo finantzarioa eskualdatzeagatik sortu den 139,73 euroko etekin negatiboa zergadunaren ondarean jarraitzen duen aktibo finantzarioa eskualdatu ahala integratuko da, salmenta egin ondorengo lehen bi hilabeteetan zergadunak beste aktibo finantzario homogeneo bat erosi duelako.

4.3.3 Kapitalizazio eragiketengatik eta bizitza edo elbarritasun aseguru kontratuengatik lortutako etekinak, diruzkoak nahiz gauzakoak.

Kategoria honen barruan honako etekinak sartzen dira:

- Kapital diferituko aseguruetatik datozenak.
- Berehalako errenten aseguruetatik datozenak, biziartekoak nahiz aldi baterakoak izan, herentzia, legatu edo beste edozein oinordetza tituluren bidez eskuratu ez direnean.
- Errenta diferituko aseguruetatik datozenak, biziartekoak nahiz aldi baterakoak izan, herentzia, legatu edo beste edozein oinordetza tituluren bidez eskuratu ez direnean.
- Aldi baterako edo biziarteko errenta iraungiak.
- Gizarte aurreikuspeneko mutualitateak. Eskubide kontsolidatuen erabilera.

ERNE kapitalizazio eragiketengatik eta bizitza edo elbarritasun aseguru kontratuetatik datozen etekinak ez dira kapital higikorren etekintzat hartuko lan etekin moduan tributatu behar dutenean⁴⁸. Egoera hori gertatzen da, esate baterako, erretiro edo elbarritasun prestazioak jasotzen dituztenak gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin hitzartutako aseguru kontratuen onuradunak direnean edota onuradun gertatzen direnean hartutako pensio konpromisoak bideratzeko asmoz enpresek aseguru kolektiboko kontratuak izenpetu dituztelako pensio plan eta fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuak⁴⁹ lehen xedapen gehigarriari eta berau garatzen duen araudian aurreikusitakoari jarraiki.

a) Kapital diferitua

Kapital diferitu bat kapitalizazio eragiketengatik edo bizitza nahiz elbarritasun aseguru kontratuengatik jasotzen denean, kapital higikorren etekina kalkulatzeko honako eragiketa hau egingo da: jasotako kapitala ken ordaindu diren primak.

Kapital higikorren etekina = jasotako kapitala – ordaindutako primak

b) Berehalako errentak

Berehalako errentak esaten zaie prima bat ordaintzearen truke berehala eta aldi-aldi jasotzen hasten direnei. Errentak urte kopuru jakin batean zehar jaso daitezke (horrelakoetan, aldi baterako errentak izango dira) edo, bestela, errentaduna bizi den bitartean (biziarteko errentak).

Zergadunak hainbat urtetan zehar jasotzen duen errentak bi osagai ditu. Batetik, emandako kapitalaren zati bat berreskuratzen da eta, bestetik, kapital hori emateagatik ordaintzen diren interesak lortzen dira apurka-apurka. Horrengatik sartzen da etekin oso bezala ekitaldi bakoitzean lortzen den errentaren zati bat. Eta arrazoi berberagatik, desberdina izaten da etekintzat hartzen den portzentajea, kontuan hartu baitaiteke errentadunak errenta eratzeko den unean duen adina edo, bestela, errenta jasoko den urte kopurua.

- **Berehala jasotzen diren biziarteko errentak.** Errenta bat zergadun baten alde eratzeko denean, kapitalaren etekin osoak konputatzeko ez da kontuan hartu behar jasotako errentaren zenbateko osoa, haren portzentaje bat baizik. Logikoki, errentaduna zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta handiagoa izango da portzentajea, haren bizi itxaropena luzeagoa denez gero, eta, beraz, denbora gehiagorako emango du kapitala, errentagarritasun handiagoa lortuko duenlarik.

⁴⁷ Ikus kapitulu honen barruan ageri den 4.3.5 apartatua, aitortu behar diren etekin portzentajeak azaltzen dituenak.

⁴⁸ Ikus 2. kapitulu, "Lanaren etekinei" buruzkoa.

⁴⁹ Testu Bateratua azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak onartu zuen.

Adina	%
40tik behera	45
40 eta 49 bitartean	40
50 eta 59 bitartean	35
60 eta 69 bitartean	25
69tik gora	20

ERNE: portzentaje horiek errenta eratzean errentadunak duen adinari dagozkio, eta aldaketarik gabe jarraituko dute errenta indarrean dagoen bitartean.

- **Berehala jasotzen diren aldi baterako errentak.** Iraupen jakineko errenta bat prima bat ordaintzearen truke eratzen denean, urtean jasotzen diren errenten portzentaje bat baka-rik integratzen da zergan, biziarteko errentetarako aipatu dien arrazoi berberengatik. Kontratuaren iraupenak erabakiko du portzentajea eta ez da aldatuko indarrean dagoen bitartean. Iraupena zenbat eta luzeagoa izan, orduan eta handiagoa izango da portzentajea.

Errentaren iraupena	%
5 edo gutxiago	15
5 baino gehiago eta 10 edo gutxiago	25
10 baino gehiago eta 15 edo gutxiago	35
15 baino gehiago	42

Adibidea

150.253,03 euroko prima ordaindu zenuen berehalako errenten aseguru bat kontratatzeke. 25 urtez aldi baterako errenta bat jasotzea zen helburua. Aseguru etxeak %3,5eko tasa aplikatu dio.

Urtean 9.114,84 euroko errenta jasoko duzu.

Hona hemen kapital higikorrenaren etekina urte bakoitzeko:

Urteko errenta	9.114,84 €
Integrazio portzentajea (15 urtetik gorako iraupena duen errenta)	%42
Kapital higikorrenaren etekin osoa	3.828,23 €

c) Errenta diferituak

Errenta diferituak biziartekoak edo aldi baterakoak izan daitezke, berehalakoak bezalaxe. Diferentzia bakarra honetan datza: errenta diferituetan, primak errentak jasotzen hasten diren ekitaldia baino lehen ordaindu behar direla. Kapital higikorrenaren etekinak kalkulatzeko, berehalako errenten kasuan aurreikusi diren portzentajeak aplikatu behar dira lehenik, eta hortik ateratzen den zenbatekoari errenta eratu arte lortu den errentagarritasuna gehitu. Errentagarritasuna honela kalkulatu da: eratzen den errentaren uneko balio finantzario-aktuarialari ordaindu diren primak kendu behar zaizkio. Errentagarritasuna linealki banatuko da biziarteko errenta kobratzen den lehen 10 urteetan zehar. Aldi baterako errenta bat izanez gero, linealki banatuko da bere iraupen urteen artean, eta 10 urtez gehienez.

Adibidea

Errenta diferituko aseguru bat kontratatzeagatik, 10 urtez 3.005,06 euroko ekarpena egin duzu urtero. Epe hori igaro ondoren, urtean behin 4.666,77 euroko aldi baterako errenta bat hasi zara jasotzen. Errenta hori 10 urtez jasoko duzu.

%4,5eko interesa aplikatzen badugu, eratzen den errentaren uneko balio finantzario-aktuariala 36.926,81 eurokoa da.

Errentagarritasun diferitua:

Errentagarritasun diferitua kalkulatzeko, eratzen den errentaren uneko balio finantzario-aktuarialetik ordaindu diren primak kendu behar ditugu.

Errentaren uneko balio finantzario-aktuarialaren balioa	36.926,81 €
Ordaindutako primak (3.005,06 € x 10 urte)	- 30.050,60 €
Errentagarritasun diferitua	6.876,21 €

Aldi baterako errenta bat denez, errentagarritasun diferitua iraupen urteen artean banatuko da (10 urte).

$$6.876,21 \text{ €} / 10 \text{ urte} = 687,62 \text{ euro/urteko}$$

Urtean jasoko den errenta:

Urtean 4.666,77 euroko errenta jasoko duzu.

Hona hemen kapital higikorrenaren etekina urte bakoitzeko:

Urteko errenta	4.666,77 €
Integrazio portzentajea (5 urtetik gorako eta 10 urte edo hortik beherako iraupena duen errenta)	%25
Etekin osoa	1.166,69 €

Kapital higikorrenaren etekin osoa:

Urteko zenbatekoa (urteko errentaren %25)	1.166,69 €
Urteko errentagarritasun diferitua	687,62 €
Kapital higikorrenaren etekin osoa (1.166,69 € + 687,62 €)	1.854,31 €

Dena den, badago erregimen berezi bat jubilazio eta elbarritasun prestazioei aplikatzen zaiena bizitza edo elbarritasun aseguru kontratuen onuradunek errenta moduan jasotzen dituztenean. Kontratu horiek ez dute inolako zer ikusirik eduki behar gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin sinatzen diren aseguru kontratuekin edo enpresek pensio gaietan hartutako konpromisoak betetzeko izenpetzen dituzten kontratu kolektiboekin (hau da, pensio plan eta fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuak⁵⁰ lehen xedapen gehigarrian eta berau garatzen duen araudian ezarritakoaren arabera izenpetzen direnekin). Erregimen honetan, prestazioak kapital higikorrenaren etekin bezala integratzen dira zergaren oinarri ezargarrian, horien zenbatekoa kontratuagatik ordaindutako primak baino handiagoa den unetik aurrera. Horrelakoetan, beraz, berehalako errentetarako aurreikusi diren portzentajeak ez dira aplikatuko. Erregimen berezi hau aplikatu ahal izateko, bi baldintza bete behar dira:

- Aseguru kontratuaren hornidurretan inolako mobilizaziorik egon ez izana bere indarraldian zehar.
- Jubilazio prestazioen kasuan, aseguru kontratua gutxienez jubilazio eguna baino bi urte lehenago egin izana.

⁵⁰ Testu Bateratua azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak onartu zuen.

Horrez gain, bi baldintza hauek bete beharko dira:

- Prestazioak Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuak⁵¹ 8.6 artikuluan aipatzen dituen kasuetan bakarrik jaso daitezke, pentsio plan eta fondoetarako ezarritakoari jarraiki.
- Aseguru kontratuaren horniduretan mobilizazioen bat izan dela ulertuko da Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuak⁵² lehen xedapen gehigarrian eta berau gartzatzen duen araudian eskubide ekonomikoak erabiltzeari buruz ezartzen dituen mugak betetzen ez direnean, enpresek pentsio gaitan hartutako konpromisoak betetzeko izenpetutako aseguru kolektiboetarako dagokienez.

Adibidea

Demagun errenta diferituko aseguru bat kontratatu duzula eta jubilazio adinera iritsi arte 3.005,06 euroko ekarpena egin duzula urtero (10 urtez egin duzu ekarpena). Urte horiek igaro ondoren, urtean behin 4.666,77 euroko aldi baterako errenta hasi zara jasotzen 10 urtez.

%4,5eko interes tasa aplikatzen badugu, eratzten den errentaren uneko balio finantzario-aktuariala 36.926,81 eurokoa da.

Erregimen orokorra lehen adierazi duguna izango litzateke:

Errentagarritasun diferitua kalkulatzeko, eratzten den errentaren uneko balio finantzario-aktuarialetik ordaindu diren primak kendu behar ditugu.

Errentaren uneko balio finantzario-aktuarialaren balioa	36.926,81 €
Ordaindutako primak (3.005,06 € x 10 urte)	- 30.050,60 €
Errentagarritasun diferitua	6.876,21 €

Aldi baterako errenta bat denez, errentagarritasun diferitua iraupen urteen artean banatuko da (10 urte).

$$6.876,21 \text{ €} / 10 \text{ urte} = 687,62 \text{ euro/urteko}$$

Urtean 4.666,77 euroko errenta jasoko duzu.

Hona hemen kapital higikorren etekina urte bakoitzeko:

Urteko errenta	4.666,77 €
Integrazio portzentajea (5 urtetik gorako eta 10 urte edo hortik beherako iraupena duen errenta)	%25
Integratu beharreko errenta (776.485ren %25)	1.166,69 €

Urteko zenbatekoa (urteko errentaren %25)	1.166,69 €
Urteko errentagarritasun diferitua	687,62 €
Kapital higikorren etekin osoa (1.166,69 € + 687,62 €)	1.854,31 €

Erregimen berezian, ordea, ez duzu ordaindu behar harik eta jasotako errenten zenbatekoa (4.666,77 euro) ordaindutako primen batura (30.050,60 euro) baino handiagoa izan arte.

Urtea	Urtean jasotako errenta	Ordaindutako primen batura	Oinarri ezargarrian sartu beharreko zenbatekoa
1	4.666,77 €	30.050,60 €	0 €
2	4.666,77 €	25.383,83 €	0 €
3	4.666,77 €	20.717,06 €	0 €
4	4.666,77 €	16.050,29 €	0 €
5	4.666,77 €	11.383,52 €	0 €
6	4.666,77 €	6.716,75 €	0 €
7	4.666,77 €	2.049,98 €	2.616,79 €
8-10	4.666,77 €	0 €	4.666,77 €

Erregimen berezi hau aplikatu ahal izateko honako baldintzak bete behar dira:

- kontratua erretiroa hartu baino gutxienez bi urte lehenago egitea.
- prestazioak honako egoera hauek direla-eta kobratzea: erretiroa edo antzeko egoeraren bat, ohiko lanerako ezintasun iraunkor osoa, edozein lanetarako erabateko ezintasun iraunkorra, eta partaidearen edo onuradunaren heriotza.
- aseguru kontratua indarrean egon den bitartean horniduretan mobilizaziorik ez egotea.

d) Aldi baterako edo biziarteko errentak iraungitzea.

Errenta iraungitzen bada erreskate eskubidea erabili delako, orduan kalkulatu ditugu eragiketarik datozen kapitalaren etekinak. Horretarako, hauxe egingo da: lehendabizi, erreskatearekin lortutako kopuruari apartatu honetako aurreko puntuen arabera kapital higikorren etekintzat hartu ez diren errenten zatia gehituko zaio, eta gero, batuketa horretatik ateratzen den emaitzari ordaindutako primak kendu.

ERNE aldi baterako edo biziarteko errenta heriotzagatik iraungitzen denean, ez da etekinik izango errentadunarentzat.

e) Gizarte aurreikuspeneko mutualitateak. Eskubide kontsolidatuen erabilera.

Eskubide kontsolidatuak erabiltzen badira eskubide horiek gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin izenpetutako kontratuetatik datozenean eta ekarpenek oinarri ezargarria murrizten dutenean gaixotasun larria edo iraupen luzeko langabezia ez diren kasuetan, kapital higikorren etekin gisa zergapetuko dira.

Besteren konturako langileak edo bazkide langileak badira gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin aseguru kontratuak sinatu dituztenak, kontsolidatutako eskubideak lanaren etekin gisa⁵³ zergapetuko dira aseguruak Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuak⁵⁴ lehen xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera egiten direnean.

⁵¹ Testu Bateratua azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak onartu zuen.

⁵² Testu Bateratua azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak onartu zuen.

⁵³ Ikus lan etekinei buruzko kapituluaren barruan 2.1.1 apartatua.

⁵⁴ Testu Bateratua azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak onartu zuen.

4.3.3.1 Biziarteko eta aldi baterako errentei aplikatzen zaien erregimen iragankorra

1. Biziarteko eta aldi baterako errentak 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen eratu direnean

Biziarteko eta aldi baterako errentetatik, berehalakoak nahiz diferituak izan, zein zati hartuko den kapital higikorren etekintzat kalkulatzeko, aurreko b) letran ezarri diren portzentajeak 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera errenta moduan jasotako prestazioei aplikatuko zaizkie bakar-bakarrik. Horretarako, beharrezkoa da errenta horiek data hori baino lehen eratuak izatea. Portzentajeak honela aplikatuko dira:

- **Biziarteko errentak** badira, errenta eratzeko unean errentadunak duen **adinaren** arabera.
- **Aldi baterako errentak** badira, errentaren **iraupenaren** arabera.

Adibidea

1996. urtean, 67 urte zenituela, 12.020,24 euroko biziarteko errenta eratu zen zure alde.

1996, 1997 eta 1998ko ekitaldietan, oinarri ezargarrin sartu den kapital higikorren etekina 4.808,10 eurokoa izan da (12.020,24ren %40).

1999, 2000, 2001, 2002, 2003, 2004 eta 2005eko ekitaldietan kapital higikorren etekina 3.005,06 eurokoa izango da (12.020,24ren %25). Izan ere, 1999ko ekitaldian, hau da, abenduaren 24ko 8/1998 Foru Araua indarrean sartu zen urtean, zure adina 70 urtekoa bazen ere, errenta eratzten den urtean 60 eta 69 urte bitarteko adina duten errentadunentzat %25eko portzentajea aplikatzen da (*ikus 4.3.3.b apartatua*).

2. Etekinak 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen eraturako biziarteko edo aldi baterako errentak erreskatatzeagatik

1999ko urtarrilaren 1a baino lehen eratu diren biziarteko edo aldi baterako errentak erreskatatzen badira, erreskatearen ondorioz sortzen den kapital higikorren etekina errenta eratu arte lortutako errentagarritasuna kenduz kalkulatu da.

4.3.4 Kapital higikorren beste etekin batzuk

Kapital higikorren etekintzat ondoko hauek ere hartzen dira, diruzkoak nahiz gauzazkoak izan:

- **Jabetza intelektualetik** datozenak, autorea zergaduna ez denean (autoreek jaso badituzte, jarduera profesionalen etekintzat hartzen dira).
- **Jabetza industrialetik** datozenak, beti ere jabetza hori zergadunak egiten dituen jarduera ekonomikoetara atxikita ez badago (lizentziak ematen dituen inbentorea bera denean, jasotako kontraprestazioa jarduera profesional batetik eratorritako sarreratzat hartuko da).
- **Laguntza teknikoak** datozenak, laguntza edo prestazioa jarduera ekonomiko baten barruan ematen denean izan ezik.
- **Ondasun higikor, negozio edo meategiak errentan ematen** datozenak, bai eta **azpierrentamendua** dela-eta azpierrentatzaileak jasotakoak ere, beti ere jarduera ekonomikorik osatzen ez dutenean.
- Kapitalak ezartzearen ondorioz jasotzen diren **biziarteko edo aldi baterako errentak**, beti ere herentzia, legatu edo beste edozein oinordetza tituluren bidez eskuratu ez badira.

Kapital higikorren etekintzat honako hau hartuko da: biziarteko, biziartekoak nahiz aldi baterakoak izan, gidariburu honetako 4.3.3 apartatuko b) letran adierazi diren portzentajeak urteko ordainketa bakoitzari aplikatuz atez atez dena. Biziarteko eta aldi baterako errenten kasuan, 4.3.3.1 apartatuan jasotzen den erregimen iragankorra ere aplikatuko da.

- **Ondasun higikorren gainerako eskubide errealak nahiz erabilpen edo gozamen ahalmenak eratu edo lagatzen** datozenak.
- **Irudia ustiatzeko eskubidea lagatzen** edo irudia erabiltzeko onarpen edo baimenetik datozenak, salbu eta etekin horiek irudia ustiatzeko eskubidea sortzen duenak berak eskuratzen baditu edo jarduera ekonomiko baten baitan sortzen badira.

4.3.5 Etekinen zein portzentaje aitortu behar da?

Kapital higikorren etekin osoa aurreko apartatuetan zehaztutako etekin guztiek osatuko dute oro har. Hala eta guztiz ere, ondorengo kasuetan, kapital higikorren etekin osoa lortzeko, etekin horien zenbateko osoari portzentaje jakin batzuk aplikatuko zaizkio eta, horren ondorioz, gainerakoa oinarri ezargarririk kanpo geldituko da, hau da, ez da zergapetuko. Adibidez, bi urtetik gorako epean sortutako kapital higikorren etekinetatik %60 integratuko dela esaten badugu, horrekin esan nahi da gainerako %40a ez dela aitortu behar. Hona hemen aipatu portzentajeak:

a) Bi edo bost urtetik gorako epean sortutako etekinak

Kapital higikorren etekinak bi urtetik gorako epean sortu badira, **%60** integratuko da, eta bost urtetik gorako epean sortuak badira, berriz, **%50**.

ERNE: sorreraldia bi urtetik gorakoa dela agerian egon arren, ezin bada zehatz-mehatz finkatu, hiru urtekoa dela joko da.

Sorreraldia	Integrazio %
+2 urte	60
+5 urte	50

Bi urtetik gorako epean sortutako kapital higikorren etekinak **zatika jasotzen direnean**, honako eragiketa hau egingo da: sorreraldiko urteak, datatik datara konputatuak, zati etekinak zatikatu diren zergaldien kopurua:

$$X = \frac{\text{Etekinak zenbat urtetan sortu diren}}{\text{Etekinak zatikatu diren zergaldien kopurua}}$$

- Emaitza bi urtetik gorakoa bada, %60ko portzentajea aplikatuko da.
- Emaitza bost urtetik gorakoa bada, %50eko portzentajea aplikatuko da.

Adibidea

2001eko urtarrilaren 1ean diru ezarpen bat egin zenuen epe finkora, 2005eko urtarrilaren 2an amaitzen dena. Guztira 6.010,12 euroko kapitala jarri zenuen eta, epemugara iritsi ondoren, 6.460,88 euro jaso dituzu.

Jasotako zenbatekoa (6.460,88 € - 6.010,12 €)	450,76 €
Integrazio portzentajea	%60
Etekin osoa (450,76 € x 0,60)	270,46 €

b) Denboran zehar era irregular nabarmenean lortutako etekinak

Kapital higikorren etekinak denboran zehar era irregular nabarmenean lortutakotzat kalifikatzen direnean, haien %50 integratuko da.

Kapital higikorren honako etekin hauek bakarrik hartzen dira denboran zehar era irregular nabarmenean lortutakotzat, beti ere zergaldi bakar bati egotzen bazaizkio:

- Errentamendu kontratua traspasatu edo lagatzeagatik lortutako kopuruak.
- Errentamendu kasuetan, kalteak direla-eta errentari edo azpierrentariarengandik jasotako kalte-ordainak.

c) Ondasun higikorren gaineko eskubide errealak eratzetik datozen etekinak

Ondasun higikorrek erabili edo gozatzeko eskubide errealak eratzetik datozen etekinak **beren zenbateko osoagatik** konputatuko dira beti.

d) Bizitza aseguruaren kontratuetatik datozen etekinak

Etekinak bizitza aseguruaren kontratuetatik etorri eta kapital moduan jasotzen badira, prima bakoitzari dagozkion etekinen portzentaje bat konputatuko da. Prima ordaindu denetik kapitala jaso arte igarotako denbora hartuko da kontuan:

Ordaintzen denetik kobratu arte igarotako denbora	Integratu beharreko kapitalaren %
2 urte edo gutxiago	100
2 urte baino gehiago	60
5 urte baino gehiago	25
8 urte baino gehiago*	25

* %25eko portzentaje hau bizitza aseguru kontratuen etekin osoari (kapitalari) aplikatuko zaio baldin eta lehen prima ordaindu denetik 8 urte baino gehiago igaro badira eta kontratuak iraun duen denboran ordaindutako primen aldizkakotasun eta erregularitasun nahikoa gorde badute.

Noiz gordetzen dute aldizkakotasun eta irregularitasun nahikoa? Lehen prima ordaindu denetik zortzi urte baino gehiago igaro direnean eta primen batez besteko iraupenaldia lau urtetik gorakoa izan denean.

Primen batez besteko iraupenaldia kalkulatzeko, prima bakoitza zein bere iraupeneko urte kopuruarekin biderkatuko da lehenik, eta guztien batura egin ondoren (Σ), emaitza ordaindutako primen batura osoarekin zatituko da.

$$\text{Primen batez besteko iraupenaldia} = \frac{\Sigma (\text{prima x iraupeneko urteak})}{\text{Ordaindutako prima guztien batura}}$$

Bizitza aseguruaren kontratuetatik datozen prestazioak kapital moduan jasotzen direnean, eta kontratu horiek aldizkako nahiz aparteko primak dituztenean, lortu den etekin osoatik prima bakoitzari zein zati dagozkion kalkulatzeko etekin oso hori zatidura honetatik ateratzen den ponderazio koefizientearekin biderkatuko da:

Zenbakitzaile gisa, dagozkion prima ordaindu zenetik prestazioa kobratu arte igarotako urte kopurua ordaindutako primarekin biderkatuz ateratzen den emaitza jarriko da.

Izendatzaile gisa, dagozkion prima ordaindu zenetik prestazioa kobratu arte igarotako urte kopurua ordaindutako prima bakoitzarekin biderkatuz ateratzen diren biderkaduren batura (Σ) jarriko da.

$$\text{Etekin osoa x} \frac{\text{prima x ordaintzetik kobratu arteko urte kop.}}{\Sigma (\text{prima x ordaintzetik kobratu arteko urte kop.})}$$

Bizitza aseguruaren kasuan, hartzailak inbertsio arriskua bere gain hartzen duenean, lehen aipatu diren portzentajeak ez zaizkio etekinei aplikatuko, salbu kontratu horietan zirkunstantzia hauetako bat gertatzen bada:

- Hartzailari ez ematea polizak eragindako inbertsioak aldatzeko ahalmena.
- Hornidura matematikoak honela inbertituta egotea:
 - Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzetan, kontratuetan aurrez jaso direnean, baldin eta:
 - Inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko Legera ego- kitutako inbertsio kolektiboko erakundeak badira.
 - Europako Kontseiluak 1985eko abenduaren 20an hartutako 85/611 Arteztarauak babestutako inbertsio kolektiboko erakundeak badira.
 - Aseguru entitatearen balantzean bereizita islatutako aktibo multzoetan, baldin eta beharkizun hauek betetzen badira:
 - Momentu guztietan aseguru entitateak erabakiko du zein aktibo sartzen den bereizita aktibo multzo desberdin bakoitzean; ondorio horietarako, aktiboak aukeratzeko askatasun osoa izango dute entitate horiek, aktibo multzoaren arrisku profilari edo bestelako zirkunstantzia objektiboei buruz aurrez erabakitako irizpide orokorrei lotuta bakarrik.
 - Hornidura teknikoan inbertsiorako gai diren aktiboetan egin beharko da horniduren inbertsioa, azaroaren 20ko 2486/1998 Errege Dekretuak, aseguru pribatuak antolatu eta ikuskatzeko Erregelamenduari buruzkoak, 50. artikuluan jasotakoaren arabera, salbu ondasun higiezinak eta ondasun eskubide higiezinak badira.
 - Aktibo multzo bakoitzean egiten diren inbertsioek dibertsifikazio eta sakabanaketa mugak bete beharko dituzte, aseguru pribatuak antolatu eta ikuskatzeko azaroaren 8ko 30/1995 Legeak, Erregelamenduari buruzko

azaroaren 20ko 2486/1998 Errege Dekretuak eta hura garatzeko ematen diren gainerako arauak jasotakoaren arabera. Dena den, aktiboen multzoek baldintza horiek betetzen dituztela ulertuko da garatzen duten inbertsio politikak honako helburua duenean: Europako Batasuneko bigarren mailako balore merkatu ofiziale-tako batzuen burtsako indize bat edo errenta finkoko indize jakin bat erreproduzitzea.

- Hartzaileak hauxe baino ezin izango du aukeratu aktiboen multzo bereizi desberdinen artean: aseguru entitateak non inbertitu behar duen aseguruaren hornidura matematikoa. Halere, inoiz ere ez du parte hartuko multzo bereizi bakoitzaren barruan hornidura horiek inbertitzen diren aktibo konkretuak erabakitzean.
- Kontratu hauetan, hartzaileak edo aseguratuak kontratuetan espresuki izendatuta dauden inbertsio kolektiboko erakundeen edo aktibo multzo bereiztuen artean aukeratu ahal izango du polizan jasotako zehaztapenei jarraiki, eta inoiz ere ezin izango da berezitasun singularrik ezarri hartzaile edo aseguratu bakoitzarentzat.
- Aurreko baldintzak kontratuaren indarraldi osoan bete behar dira.

Bizitza aseguruaren hartzaileak inbertsio arriskua bere gain hartzen duenean eta aseguru horiek lehen adierazitako baldintzak betetzen ez dituztenean, polizari lotutako aktiboen zergaldiaren amaieran eta hasieran duten likidazio balioen arteko diferentzia zergaldi bakoitzeko kapital higikorren etekin moduan egotziko da. Errenta egotziek kontratuen kopuruak jasotzean sortutako etekina gutxituko dute.

Polizaren erreskate partziala ...

Aseguru kontratuek erabilpen partziala baldin badute, kapital moduan jasotako prestazioen etekinei dagozkien integrazio portzentajeak (lehen aipatuak) urte natural bakoitzean egiten den lehen erreskatetik eratorritako etekinei bakarrik aplikatuko zaizkie. Integrazio portzentaje hori bateragarria izango da kontratua iraugitzeagatik bidezkoa gerta daitekeenarekin.

Ordainketa mistoen kasuan ...

Hauk ordainketa bakarra eta errenta moduan egindako ordainketak konbinatzen dituzte. Kasu hauetan, adierazitako portzentajeak kapital moduan kobratutakoari bakarrik aplikatzen zaizkio.

Prestazioa errenta moduan behin kobratzen hasi eta errenta hori modu aurreratuan berreskuratzen bada, lortutako etekinari prima bakoitzak errenta eratzean duen antzinasunaren arabera aplikatuko zaio portzentajea. 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen ondare gehikuntzak edo gutxipenak sortu dituzten bizitza aseguru kontratuen erregimen iragankorra

Erregimen iragankorra ondorengo kasuetan aplikatuko da:

- Bizitza aseguruaren kontratuek ondare gehikuntzak edo gutxipenak sortu dituztenean abenduaren 27ko 13/1991 Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, xedatutakoaren arabera.
- Prestazioa kapital diferitu moduan jasotzen denean.
- Etekina 1994ko abenduaren 31 baino lehen ordaindutako primetatik datorrenean.

Aurreko baldintzak betetzen direnean, eta etekina behin kalkulatu ondoren⁵⁵, 1994ko abenduaren 31 baino lehen ordaindutako primen

⁵⁵ Etekina abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 36. eta 38. artikuluetan ezarritakoari jarraiki kalkulatu da, 38. artikuluan 2. apartatuko b) letraren azken paragrafoan jasotakoa kontuan hartu gabe.

zatiari Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 13/1991 Foru Arauak bederatzigarren xedapen iragankorrean ezartzen dituen murrizpen portzentajeak aplikatuko zaizkio.

Adibidea

2001eko urtarrilaren 1ean **prima bakarreko aseguru** bat kontratatu zenuen 6.010,12 euro ordainduz, eta 2005eko urtarrilaren 2an (1au urte eta egun bat igaro eta gero), 9.015,18 euro jaso dituzu.

Etekina (9.015,18 € - 6.010,12 €)	3.005,06 €
Integrazio portzentajea	%60
Etekin osoa (3.005,06 € x 0,6)	1.803,04 €

e) Elbarritasun aseguruaren kontratuetatik datozen etekinak

Elbarritasun prestazioak kapital moduan jasotzen badira aseguru kontratuek egitearen ondorioz, kontratu horiek, beti ere, enpresek pentsio gaietan hartutako konpromisoak betetzeko izenpetutako kontratu kolektiboak izan gabe (pentsio plan eta fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuak⁵⁶ lehen xedapen gehigarrian eta berau garatzen duen araudian ezarritakoaren arabera), portzentaje hauek integratuko dira:

- Elbarritasun prestazioak 8 urtetik gorako antzinasunez hartzatutako aseguru kontratuen ondorio direnean, etekinen **%25** integratuko da ordaindutako primen aldizkakotasun eta erregulartasun nahikoa gordetzen badute.

Noiz gordetzen dute aldizkakotasun eta irregulartasun nahikoa? Lehen prima ordaindu denetik zortzi urte baino gehiago behin igarota, primen batez besteko iraupenaldia lau urtekoa baino handiagoa izan denean.

Primen batez besteko iraupenaldia kalkulatzeko, prima bakoitza zein bere iraupeneko urte kopuruarekin biderkatuko da lehenik, eta guztien batura egin ondoren (Σ), emaitza ordaindutako primen batura osoarekin zatituko da.

$$\text{Primen batez besteko iraupenaldia} = \frac{\Sigma (\text{prima} \times \text{iraupeneko urteak})}{\text{Ordaindutako prima guztien batura}$$

- Onuradunak **%65eko edo hortik gorako minusbaliotasuna** duten pertsonak direnean edo, maila horretara iritsi ez arren, haien **elbarritasuna judizialki** eta Kode Zibilararen arabera **aitortu denean**, elbarritasun prestazioetatik datozen etekinen **%25** integratuko da.
- **Aurreko baldintzak betetzen ez direnean**, elbarritasunagatik jasotako prestazioen etekinen **%60** integratuko da.

	Integratu beharreko kapitalaren %
%65etik beherako minusbaliotasuna	60
%65ekoa edo handiagoa eta judizialki aitortutako minusbaliotasuna	25
8 urte baino gehiago lehen prima ordaindu denetik *	25

⁵⁶ Testu Bateratuak azaroaren 29ko 1/2002 Errege Dekretu Legegileak onartu zuen.

* %25eko portzentaje hau elbarritasun aseguru kontratuen prestazioei (kapitalari) aplikatuko zaio baldin eta lehen prima ordaindu denetik 8 urte baino gehiago igaro badira, eta kontratuak iraun duen denboran ordaindutako primek aldizkakotasun eta erregulartasun nahikoa gorde badute.

Polizaren erreskate partziala ...

Aseguru kontratuak erabilpen partziala baldin badute, kapital moduan jasotako prestazioen etekinei dagozkien integrazio portzentajeak (lehen aipatuak) urte natural bakoitzean egiten den lehen erreskatetik eratorritako etekinei bakarrik aplikatuko zaizkie. Integrazio portzentaje hori bateragarria izango da kontratua iraungitzeagatik bidezkoa gerta daitekeenarekin.

Ordainketa mistoen kasuan ...

Hauek ordainketa bakarra eta errenta moduan egindako ordainketak konbinatzen dituzte. Kasu hauetan, adierazitako portzentajeak kapital moduan kobratutakoari bakarrik aplikatzen zaizkio.

Prestazioa errenta moduan behin kobratzen hasi eta errenta hori modu aurreratuan berreskuratzen bada, lortutako etekinari prima bakoitzak errenta eratzean duen antzinasunaren arabera aplikatuko zaio portzentajea.

Adibidea

Jubilazio eta elbarritasun aseguru bat kontratatu zenuen. Elbarritasunagatik aseguraturako kapitala 30.050,61 eurokoa da. Elbarri geratu zaren data iristerako (2005. urtea), 6.010,12 euro ordaindu dituzu prima gisa.

Minusbaliotasun maila %65ekoa edo handiagoa bada edo elbarritasuna judizialki aitortua badago:

Etekina (30.050,61 € - 6.010,12 €)	24.040,49 €
Integrazio portzentajea	%25
Etekin osoa (24.040,49 € x 0,25)	6.010,12 €

Minusbaliotasun maila %65etik beherakoa bada:

Etekina (30.050,61 € - 6.010,12 €)	24.040,49 €
Integrazio portzentajea	%60
Etekin osoa (24.040,49 € x 0,60)	14.424,29 €

LABURPENA: integrazio portzentajeak	%
Izaera orokorrean	100
Bi urtetik gorako epean sortutako etekinak	60
Bost urtetik gorako epean sortutako etekinak	50
Denboran zehar era irregularrean lortutako etekinak	50
Ondasun higikorren gaineko eskubide errealek eratzetik datozen etekinak	100
Bizitza aseguruaren kontratuetatik datozen etekinak	25 eta 100 bitartean
Elbarritasun aseguruaren kontratuetatik datozen etekinak	25 eta 60 bitartean

ERNE: prestazioak errenta moduan jasotzen direnean, integrazio portzentaje horiek ez zaizkie aplikatzen.

4.4 Zein gastu dira kengarriak?

Etekin osoetatik ondorengo gastu hauek kendu ahal izango dira soil-soilik:

- Balore negoziagarrien administrazio eta gordailu gastuak.**

Administrazio eta gordailu gastutzat hartuko dira baloreen sozietate eta agentziek jasanarazten dituzten kopuruak, eta baloreen merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 76. artikulua arabera baimenduta dauden beste entitateek jasanarazitakoak, beren xedea honako hau izan denean:

- Tituluen bidez adierazitako baloreak gordailatzea.
- Kontuko oharpenen bidez adierazitako baloreak administratzea.

Entitate hauek egiten dituzten zerbitzuengatik ezingo da kenkaririk egin beren xedea inbertsorearen kartera diskrezionalki kudeatzea denean.

- Beste gastu batzuk**

Etekinak laguntza teknikoaren prestaziotik edo ondasun higikor, negozio edo meategiak errentan nahiz azpierreant emaketik datozenean, etekin osoetatik honako hauek kenduko dira: etekinak lortzeko beharrezkoak izan diren gastuak eta, hala badagokio, etekinen sortzaile diren ondasun edo eskubideek izandako hondamenaren zenbatekoa.

4.5 Nola kalkulatu da etekin garbia?

Kapital higikorren etekin garbia kalkulatzeko, etekin osoetatik gastu kengarriak kendu behar dira.

$$\text{Etekin garbia} = \text{Etekin osoak} - \text{Gastu kengarriak}$$

Adibidea

Demagun zure kapital higikorren **etekinak** honako hauek izan direla:

	Zenbateko gordina	Atxikipen %	Atxikitako zenbatekoa	Zenbateko likidoa
Kontu korrontearen interesak	96,16 €	%15	14,42 €	81,74 €
Eperako ezarpenaren interesak	601,01 €	%15	90,15 €	510,86 €
BBVko akzioen dibidenduak	72,12 €	%15	10,82 €	61,30 €

Administrazio eta zaintza **gastuengatik** 9,02 euro ordaindu dizkiozu akzioak gordailatzen dituen entitateari.

Kontu korrontearen interesak	96,16 €
Eperako ezarpenaren interesak	601,01 €
BBVko akzioen dibidenduak (72,12 € x 1,40)	100,97 €
Etekin osoak, guztira (96,16 € + 601,01 € + 100,97 €)	798,14 €
Administrazio eta zaintza gastuak	- 9,02 €
Kapital higikorren etekin garbia (798,14 € - 9,02 €)	789,12 €

4.6 Nori egotzen zaizkio kapital higikorraren etekinak?

Kapitalaren etekinak, etekin horien sorburu diren **ondare elementuen, hau da, ondasun edo eskubideen titular diren zergadunek** lortzen dituztela jotzen da. Ondorengo kasuotan, honela jokatu da:

- **Titularitatea behar bezala frogatzen ez bada,....**

Ondasun edo eskubideen titularitatea behar bezala frogatzen ez denean, zerga Administrazioak erregistro fiskal batean edo beste edozein erregistro publikotan titular gisa ageri dena hartu ahal izango du halakotzat.

- **Titular bat baino gehiago badago...**

Titular bat baino gehiago dagoenean, bakoitzak titularitatean duen partaidetzaren arabera lortu dituela etekinak ulertuko da. Beraz, kotitular bakoitzak honako hau egin beharko du: lehenik, bere titularitate portzentajea ondasun edo eskubideak sortu dituen sarrera eta gastu guztiei aplikatu, eta hortik ateratzen den emaitza etekin oso bezala eta gastu ken-garri bezala aitortu hurrenez hurren.

- **Senar-emazteen eta izatezko bikoteen kasuan...**

Senar-emazteen edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoteen kasuan, ezkontzaren erregimen ekonomikoa edo izatezko bikotearen ondare erregimena arautzen duten xedapenetan hitzartutakoari jarraiki bienak diren ondasun eta eskubideetatik datozen etekinak erdibana egotziko zaizkie, beste partaidetza kuota bat frogatzen denean izan ezik. Aldiz, arau berberei jarraituz ondasun edo eskubideak ezkontide batenak edo izatezko bikoteko kide batenak bakarrik direnean, horietatik datozen etekinak ezkontide horri edo bikoteko kide horri egotziko zaizkio oso-osorik.

4.7 Noiz egotzen dira kapital higikorraren etekinak?

Kapital higikorraren etekinak jasotzaileak exijitzen dituen zergaldiari egotziko zaizkio.

Zenbatetsitako errentak produzituztat jotzen diren zergaldiari egotziko zaizkio.

Zer egin behar da egoitza atzerrira aldatzen bada?

Zergadunak atzerrira aldatu badu bere egoitza eta, horregatik, zergadun izateari utzi badio, egotzeko dauzkan errenta guztiak egoitza aldatu aurreko tokian zerga honengatik aitortu behar zuen azken zergaldiko oinarri ezargarrian sartuko dira, erregelamenduz finkatzen diren baldintzetan. Beharrezkoa izanez gero, aitorten likidazio osagarri bat egingo da, baina zigorrik, berandutza interesik edo inolako errekar gurik gabe.

Eta hiltzen bada?

Zergaduna hiltzen bada, egotzi gabe gelditu diren errenta guztiak aitortu behar den azken zergaldiko oinarri ezargarrian integratuko dira.

4.8 Nola baloratzen dira zenbatetsitako etekinak?

Ondasun eta eskubideen lagapenak ordainduak izan direla jotzen da.

Etekin zenbatetsien balorazioa **merkatuko ohiko balioaren arabera** egingo da. Merkatuko ohiko balioztat bi subjektu independenteren artean adostuko litzatekeen kontraprestazioa izango da, kontrako frogarik ezean beti ere. Froga bideak zuzenbidean onartzen direnak dira.

Maileguetan eta, oro har, besteen kapitalak eskuratu edo erabiltzeko eragiketen kasuan, merkatuko ohiko balioztat zergaldiko azken egunean indarrean dagoen diruaren legezko interes tasa hartuko da.

ERNE 2005. urterako, diruaren legezko interesa %4an finkatu da.

4.9 Eragiketa lotuak

Izaera orokorrean, lotura egoerak daudenean, Sozietateen gaineko Zergaren araudiak⁵⁷ eragiketa lotuak baloratzeko ezartzen dituen erregelak aplikatuko dira; beraz, lotura kasuetan han adierazitakoaren arabera jokatu da.

Oro har, eragiketa lotuak benetan itundu diren balioen arabera konputatzen dira, merkatuko ohiko balioarekin bat etorri ez arren.

Hala ere, preskripzio epearen barruan, zerga Administrazioak merkatuko ohiko balioaren arabera balora ditzake pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketak, baldin eta itundu den balorazioak -lotutako pertsona guztiak kontuan hartuz- berekin ekarri badu Espainian gutxiago tributatzea gehiago tributatuko zenean merkatuko ohiko balioa aplikatuta edo tributazio hori geroratu.

Pertsona edo entitate lotuak izan daitezke:

- **Sozietate** bat eta bere **bazkidea**, azken honek duen portzentajea %5ekoa edo handiagoa denean izaera orokorrean, edota %1eko portzentajea duenean sozietatearen baloreek bigarren mailako merkatu antolatu batean kotizatuz gero.
- **Sozietate** bat eta bere **kontseilari** edo administratzaileak.
- **Sozietate** bat eta aurreko edozeinen **ezkontidea, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikote-laguna, aurreko ahaideak edo ondorengo ahaideak**.
- **Aurreko kasuetako edozein, talde bereko sozietateekin**.

⁵⁷ Ikus Sozietateen gaineko Zergaren araudia, eragiketa lotuak baloratzeko erregelak jasotzen dituen.